

2016 DEIALDIA.

Euskal Herriko Dantza Lanen Katalogoak banaketa tresna bat izanik helburu bikoitza du, bi eginkizun: merkataritza eta bisibilizazioa hain zuzen. Helburu hauek ahalik eta hoberen betetzeko asmoz ondorengo betebeharrak garatu dira:

BETEBEHARRAK

EUSKAL HERRIKO DANTZA LANEN KATALOGOAN sartzeko, dantza konpainia, kolektibo edo sortzaileek ondorengo betebeharrak konplitu beharko dituzte.

- Konpainia edo sortzailea Euskal Herrian izan behar du helbide fiskala.
- Argitaratzen diren dantza lanak **azken 5 urteotan** estreinatuak izan behar dute (**2011, 2012, 2013, 2014 eta 2015**). Estreinaldiaren data eta tokia adierazi behar dira. Gainera egindako boloen memoria bidali behar da.
- Ekoizpen eszenikoak **azken bost urteotan (2011, 2012, 2013, 2014 eta 2015)** Euskal Herriko edo kanpoko erakunde edo entitate bati laguntza **eskaera egin izatea** eskatzen da, bai diru-laguntzak, bai egonaldiak. Ez bada inolako eskaerarik egin konpainiaren ibilbidea baloratuko da: **azken hiru urteetan ekoizpen eszeniko bat egin izatea eta gainera azken hiru urteetan egindako boloen zerrenda eta hauen partaideen ibilbidea hartuko da kontuan.**
- Zehaztu behar da eskatutako laguntza mota edo egonaldi programa, erakundea eta eskaeraren data.
- Konpainia edo sortzailea gehienez 3 dantza-lan argitaratu ahal izango ditu.
- Konpainia edo sortzailea, katalogoan sartu nahi dituen dantza-lan bakoitzeko, kalitate handiko promozio bideoaren esteka bidali behar du. **Promozio Bideo honek 2 eta 5 minutu bitarteko iraupena izan behar du.**
- Argazkia kalitate handikoa izan behar du jpg formatuan.

2016 DEIALDIA.

KUOTAK

Bazkideak*: DOAN

EZ Bazkideak: ikuskizun 1: 70€
2 ikuskizun edo gehiago: 110€

ADDE-ko bazkide profesionalek 108€-ko urteko kuota bat ordainduko dute, elkartearen parte izateagatik. Katalogoa kideentzako zerbitzu bat gehiago delarik.

***Konpainia edo taldeko zuzendaria izan beharko du ADDEko bazkide, edo bestela Konpainia bazkide laguntzailea izan.**

Ez da ordaindu beharko zenbatekorik argitaratuta dagoen ikuskizun bat berriro argitaratzeagatik.

Euskal Herriko Dantza Lanen Katalogoa, ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearen proiektua da. Irabaz asmorik gabeko elkarte da eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diru-laguntza jasotzen du.

Proiektu honek Etxepare Euskal Institutua eta SGAE Fundazioaren laguntzarekin ere kontaktzen du.

Kuota hauek, ADDEk bere gain hartzen dituen gastuei aurre egiten laguntzen dute.

BIDALI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. GALDEKETA

Ikuskizun bakoitzeko galdeketa bat bete eta bidali.

Aurretik argitaratu diren ikuskizunak ere galdeketa bete beharko dute eremu guztiak beteta.

Galdeketa ondorengo estekan aurkituko duzue: <http://goo.gl/forms/ywL6zSI7Sb>
(kopiatu lotura nabigatzailean)

2. ARGAZKIA

Ikuskizun bakoitzeko kalitate handiko argazki bat erantsita bidali jpg formatuan comunicación@addedantza.org helbidera.

3. BAIMENA

Baimen dokumentua bete, firmatu eta bidali.

Baimen dokumentua ondorengo estekan aurkituko duzue:
<http://www.addedantza.org/adjuntos/convocatorias/AUTORIZACION.doc>
(kopiatu lotura nabigatzailean)

INFORMAZIO GUZTIA 2016KO OTSAILAREN 7 IGANDEA BAINO LEHEN BIDALI.



EUSKAL HERRIKO DANTZA LANEN KATALOGOA

2016 DEIALDIA.

ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearen proiektua da Etxepere Euskal Institutuaren lankidetzarekin eta Sgae Fundazioa eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntzarekin.



fundación **sgae** fundazioa

